

## BI BEKAINEN ERDI ERDIAN

Martin Arregi

*Zarautz, 16 urte*

Basoak bere ohiko soinuak baditu ere, isiltasuna erabatekoa da. Neure oin urratsak ozen entzun ditzaket belaunetarainoko elur gogortuan hondoratuz. Denboraren zantzua zeharo galdu dut, eta nire bi ahoko eskupeta zaharra ezin astunago egiten zait eskuetan. Ez dakit zenbat denbora daramadan hemen galduta, baina hasierako goizargiak tximistazko izar bakanak dituen zero gris urdinska bati egin dio lekua. Haizeak bortizki darabiltza airean zintzilikaturiko elur maluta izoztuak, nire aurpegia sastagaiak balira bezala moztuz.

Gogoratzen ez dudan gudaroste bateko uniformearen jaka luze grisak mugatzen du nire ikusmira bere bost besoko izar gorri, igitai eta mailuekin aurrean zirimolak eginez. Buruko ile horail motz zurituak babestu beharko lizkidakeen metal hotzezko kasko astunak haizearen ebakia areagotu baino ez du egiten. Aurpegian hazka egitean bizar-ile motz gogorrek nire hatz minberak ziztatzen dituzte, jostorrazak bailiran. Bota militarren altzairuzko muturraren barnean behatzak izozturik ditut, hildako zizare zurbilen gorpuen antzera. Baina min egiten didate. Bizitzak ematen dituen errebirak! Nork esan behar ote zidan izoztean nire barreanean sugar bat sentitu behar nuela. Hala da, negu hotzaren hotzenean, basoan galdurik, nire uniforme komunista beste babesik gabe, eta sugar

bat nire gorputza barnetik kanporantz izozten duena.

Hala ere, gorputzaren hotza baino hotz sakonagoa, posible bada, nire bihotzarena. Hobeto esanda, ez da bihotza hotz dudana, burua baizik. Ziurrenik nire bizitzako azken ehizaldia da hau, eta inondik nire bizitzako azken uneak ere bai. Hala eta guztiz ez naiz beldur, desesperantza edo halako sentimendurik izateko gai. Agian, bada nire izate osoan barreiatuak tristura edo halako sentimendu bat, apika tristura baino areago solemnitate estoiko bat, malenkoniako ñabardurekin.

Bat-batean nire aurrean, 300 bat metrotara, denbora guztian jarraitu ditudan aztarnak utzi dituen basurdea. Munduko hotz guztiaren pean egonik ere, ez da eskupeta sorbaldara zirt-zart batean jasotzea eta masaila kulatari itsastea eragotziko didan indarririk, bai baititut zenbait higidura barren barrenaraino sartuak, azken finean nire bizitzaren gertaeren egituraketa dakartenak, nire patuari lotuak, nolabait esateko.

Tiro egin eta basoaren isiltasunean zehar eztandaen burrunba hotsa hedatu da, elur zuri garbiaren aura sakratua kristal bat balitz bezala hautsiz. Bolboraren usain arreak odola burura igo dit, nire gorputz hila berpiztuz, nire higidura zahar erdoilduak adrenalinarekin indarraz berritzen dizkidan heinean. Hotz, sugar eta zizare oro ahaztu eta ziztu bizian, perdigoien atzetik irten naiz. Eztandaen keak barreiatu eta basoa berriz lehenera itzuli denean, basurdea zegoen lekura heldu naiz,

honen oin arrasto garbiak eta odol zipriztin mixe-  
rable batzuk besterik ez aurkitzeko...

Bizitza oso bat ez omen da alferrik pasatzen; ezer positiborik egin ez bada ere gorputza higatzen da behinik behin. Dena den, bizitzan probetxuzko ezer egin ez arren, gorputzak behintzat bere one-  
nak emanak ditu. Bista ere ez dut lehen nuena, antzina ez nukeen honelako tirorik huts egingo. Tamala gorputza bezala ene buru gogor hau higa-  
tu ez izana, piezaren atzetik joatera behartzen bai-  
nau. Egia esan, nirea bezalako burua izateak ere baditu bere alde onak, orain, ehizaren eromena joana denean eta gorputza lehenagoko lozorro egoerara itzultzean, eskertzen da zeregin bat iza-  
tea, jainkotiar zurizko infernu hotz honetan ez izozteko.

Ez ote da beste ezer egongo leku madarikatu honetan!? Nire oin urratsak baino ezin ditut entzun. Lehenagoko isiltasuna desagertua da, eta askoz ere isiltasun sakonago batek hartu du beronen lekua. Lehenago basoa bizirik zegoen, animalien bizi hotsak entzun zitezkeen, pinu-adar elur-tuen pean bizitzaren orlegitasuna asma zitekeen.... Orain, ordea, haizearen flagelu ankerrak elur maluta oro adar biluzien besarkada jagoletik erauzten ditu. Elur erauntsi bortitzaren pean bizitzaren ilunarrean dauden zuhaitz zaharrek heriotzaren ereserkia abesten dute, zeru beltzari ulu eginez. Heriotza ageri da baso madarikatu honen bazter guztietan, zuhaitz agortuetan, erreka geratuen ahots itoan, haizeak adarren artean abesten duen

adio kantuan, zerua zeharkatzean tximistek sortu itzalen forma torturatuetan, ortziaren eki ilunenean. Airean bertan arnas dezaket heriotza.

Barneko sugarra itzaltzen hasi zait hainbeste herioren aurrean, inguruan nabarmen geratzeko beldurrez edo. Dagoeneko joanak ditut gorputzaren muturrik hurrunenetako sentipenak. Hain dakusat ilun zerua non ez baitakit benetan hain beltz dagoen edota nire garun izoztuak iluntzen duen, heriozko pentsamenduekin bat datorren giroa sortzeko.

Basurdearen oin aztarnen sakoneraren arabera nabarmen geldotu da. Bietako bat, bere burua arriskuz kanpo ikusten du, edota zauria hasiera batean uste nuena baino larriagoa da. Era guztietara bere bila noa, eta beste zereginik ez dudanez, berarekin eman arte ez dut amore emango.

Lautadako basotik pixkanaka-pixkanaka goiera-ko basora igarotzen ari naiz. Zuhaitz mardul eta boteretsuen orde zuhaixkak, arbustuak eta sastrakak ari dira agertzen. Azkenerako hauek ere desagertuz doaz, elurrez jositako argiuneetara iritsi arte. Argiuneotan elurrik gabeko belar putzutxoak eratu dira, ingurunea zeharo moteatua utziz.

Mendiaren gailurrera iritsi naiz. Hortxe dago nire aurrean, erasorako prest. Agertu naizen bezain azkar nire kontra kargatu du, basoaren antzinako amorruaren indar osoz. Bere begietan ez da elurra-  
ren zuritasun puruarentzat lekurik, bizi nahiaren odol gorria eta basoaren misterio sakonaren beltza soilik ageri dira islaturik. Begi basati horietan

heriotza ageri da, nire heriotza, basurdearen heriotza, basoaren zurezko zain zaharrak ebakita.

Heriotzaren aurrean bizitzaren egituraketak ez du ezertarako balio; azken finean heriotza patuaren amaiera da. Bira eman eta ziztu bizian, berriz, basoranzko bideari ekin diot korrika batean. Nire atzean senti dezaket, heriotzaren hats suntsitzailea, basurdearen bufada nekatuetan. Heriotza nire atzean begi gorri, beltzen itxuran, heriotza nire aurrean letagin zorrotz ankerrek suntsitutako basoaren gorpuan.

Berriro ere agoniako basoan nago. Ez naiz basurdea atzean uzteko gai, baina bera ere ez dago ni harrapatzeko moduan. Ez naiz basurdeagatik amorrua sentitzeko gauza, agian ni baino okerrago ari baita pasatzen. Heriotza olgetan ari da nirekin, heriotza olgetan ari da berarekin. Hil aurretik azken bizi, matxinada printzak aldendu nahi ditu gugandik, hiltzeko unean bi karkasa huts izan gaitezen.

Halako batean, zuhaitz zahar horietako baten enberrari oratu natzaio. Lehen hiruzpalau adarrak nire azpian utzi eta basurdeari begiratu diot. Honek eroturik bezala jo eta ke enberrari erasotzen dio. Zuhaitz zaharraren dardarak senti ditzaiket beso eta izterren barnealdean, bere azaleko triskantza dakusat, letagin ankerren erasopean odol beltza jariatuz, zahartzaroaren heriotzaren odola jariatuz.

Zerutik datozen tximistak eta trumoi hotsak gero eta sarriagoak dira. Izar erorietako zenbaitzuk

estoikoki zutik zirauten zuhaitz eterno hauetako batzuen infinitatea moztu dute, sugarrezko amaiera krudel bat ipiniz beraien bizitza zentzugabe baina gozoari.

Nire zuhaitzaren balantzak gero eta gogorragoak direnez, eskupeta sorbaldaratu eta bi tiro bota dizkiot basurdeari bizkar eta sabelalde osoan. Tiro hotsa, trumoi baten eztanda, tximista baten kolpea eta zuhaitza erortzea dena batera gertatu da. Nire gorputza ez da ez behinola izan zena, zeharo kolpaturik altxa naiz, sorbalda ubel-ubel eginda, ezker besoa ezin mugiturik. Lurrean datzan basurde boteretsuaren gorpuari gerturatu natzaio. Nire belunetatik darion odolak hildakoaren sabel leher-tutik jariatu denak sortutako putzua elikatzen du. Sugarretan dira inguruko zuhaitz guztiak. Hiltzearen bukaera da hau. Ezin ditut begiak basurdearen sabelean asma daitekeen giza itxuratik aldendu. Ni neu naizela esango nuke, aurpegia perdigoiek ezabatu ez baliote. Bizirik nago, heriotza garaitu dut, baina zertarako, bizitza infernurik aluena baino latzago bada? Zertarako jarraitu bizitzen neure buruari tiro bat kopeta erdi-erdian eman ostean? Zertarako garaitu dut heriotza? Hemendik joaterakoan zeharkatu behar ditudan sugarrezko hormetan hiltzeko? Edota hemen zutik eternitate batez zentzugabeki bizitzeko, beste norbaitek lekua profanatu eta tximistek erauzten nauteneraino? Zertarako bizi, higatu besterik ez bagara egiten?

Begian pareraino altxa dut eskua. Nire zain

urdiñduak ikustean dagoeneko odola belztu ez ote zaidan galdetzen diot neure buruari, zuhaitz zaharri bezala, heriotzeko odol beltza zain izoztuetan zehar. Berez, eskua gerrikora jaitsi zait. Astiro jaka luzearen atzean gorderik daramadan baioneta atera eta inongo dudarik gabe eta zehaztasun osoz bi ahoko eskupeta zaharraren muturrean lotu dut. Eskupeta bi eskuz eutsi, indar osoz belaunerainoko elur sakonean iltzatu eta eskupetaren aurrean belaunikatu naiz. Azken aldiz sugarretara begiratu eta burua baionetan josi dut, bi bekainen erdi erdian.